

# AZTERKETAREN KODEA: COE10



**LEHIAKETA-OPOSIZIO** BIDEZ GASTEIZKO UDALEKO KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA LANPOSTUAK JABETZAN BETETZEKO EGONKORTZE-DEIALDI BEREZIA, 20/2021 LEGEARI DAGOZKION EGONKORTZEKO ETA BITARTEKOTASUN-TASA MURRIZTEKO PROZESUEN BARRUAN

## GALDETEGIA

<b>DEIALDIA</b>	<b>Kodea</b>	<b>Deialdiaren izena</b>
	COE01	AUKERA BERDINTASUNEKO AGENTEA
<b>DATA</b>	2023KO URRIAREN 27A (10:00)	
<b>Denbora, gehienez:</b>	120 MINUTU	

\*\*\*\*\* Mugikorak itzalita\*\*\*\*\*

**JARRAIBIDEAK** (irakurri arretaz orri hau)

**Ez zabaldu esan arte.**

Galdetegi honek **20 galdera** ditu. **Galdera bakoitzean dagokion puntuazioa dago adierazita. Probaren gehienezko puntuazioa: 60 puntu.**

Galarazita dago erlojua erabiltzea; gelan horrelakorik ez badago, ahoz jakinaraziko da zenbat denbora falta den, 30 minutuan behin, eta denbora bukatzean dela, 15, 10 eta 5 minutu geratzen direnean, baita azken minutuan ere.

Mahaiaren gainean hauek besterik ezin izango dira eduki: galdera-orriak, identifikazio-orria, NANA eta boligrafoa. Galarazita dago errotuladoreak erabiltzea. Galdera-orrietan markarik eginez gero, galderei erantzuteko beharrezkoa denaz aparte, galdera-orria baliogabetu egingo da.

Bete ezazu mahai gainean duzun **IDENTIFIKAZIO-ORRIA**. Idatzi zure NANA, izena, abizenak eta deialdiaren kodea/izena. Orriaren beheko aldean, **IDENTIFIKAZIO-GAKO pertsonalizatu** eta bakarra agertzen da, eta hori ERANTZUN-ORRIETAN kopiatu beharko da. Identifikazio-orria bereiz jasoko da, probaren lehen minutuak igaro ondoren.

**ERANTZUN-ORRIAK.** Mahai gainean zenbait orri aurkituko dituzu erantzunak idazteko. Idatzi, goiko aldean, **AZTERKETAREN KODEA** (ikusi galdetegi honen goiburua) eta egokitu zaizun IDENTIFIKAZIO-GAKOA. Erantzunak boligrafo urdinez edo beltzez idatziko dira. Probaren amaieran, erantzun-orriak entregatu aurretik, adierazi orri bakoitzean zein den orriaren ordena-zenbakia eta guztira zenbat orri ematen dituzun.

Proba amaitu baduzu, eta izangaiak identifikatzeko lanak dagoeneko bukatu badira, altxatu eskua, zure erantzun-orriak jaso ditzaten. **Ziurta ezazu zuzentzeko diren orriak ematen dituzula —ez zirriborroak—.**

Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

**Ohar garrantzitsua:** AZTERKETA-ORRIETAN EZ idatzi izenik edo NANik, ez sinatu eta ez erantsi zu identifikatzeko bide ematen duen elementurik. EZ ZUZENTZEKO arrazoia da.

**Gogoan izan:** erantzun labur eta zehatzak eman beharko dira, zuzenketa aurrez zehaztutako irizpideen arabera egingo baita.

**Bertaratze-ziurtagiria** nahi baduzu, eska ezazu presentzia-kontrola egiten den unean.

**Eskerrik asko zure laguntzagatik**

## AZTERKETAREN KODEA: COE10



### 1. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

1978ko Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua arabera, zein bi kasutan sar daiteke egoitza batean, edo hura erregistratu, titularraren baimenik gabe?

### 2. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 122.4 artikulua arabera, zein dira udalbatzaren batzordeen hiru eginkizun edo funtzioak?

### 3. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 8. artikulua enplegatu publikoak honela sailkatzen dira:

### 4. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 70. artikulua arabera, zeintzuk dira auzoguneen zeregin edo funtzioak? Aipatu artikulua horretan agertzen diren zortzi funtzioetatik lau.

### 5. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

Espainiako zeinu-hizkuntzak aitortzen dituen urriaren 23ko 27/2007 Legea inspiratzen duten printzipioen artean dago irisgarritasun unibertsalarena. Deskriba ezazu, eta aipa itzazu gainerako lauak.

### 6. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

Gasteizko Udala Migrazioarako Euskal Itun Sozialari atxikita dago. Itunak zeharkako zenbait ekintza aipatzen ditu udal eremuan hedatzeko: adierazi horietako lau, eta azaldu horietako bi.

### 7. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Gasteizko Udalak erakunde-adierazpen bat berretsi zuen, Gasteizko Udalean kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidea onestea eskatzen duena. Zein da haren xedea, zer kontratu motari aplikatzen zaio eta zeinetan dago berariaz salbuetsita?

## AZTERKETAREN KODEA: COE10



### 8. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

Zer paradigmak sustatzen du bere osagaien artean *hiritartasun inklusiboaren printzipioa*? Aipa itzazu hiritartasun inklusiboaren printzipioa ezaugarritzen duten lau osagaiak, Gasteizko Bizikidetza eta Aniztasuneko II. Planaren arabera, eta deskriba itzazu horietako bi.

### 9. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Defini ezazu zer diren desgaitasun-arrazoiengatik diskriminazioa eta arrazoizko egokitzapenak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren terminoen arabera.

### 10. GALDERA Puntuak, guztira: 2,10 puntu.

Aipa itzazu atzeritarrek Espainian dituzten eskubideak eta askatasunak, 4/2000 Lege Organikoaren I. tituluko I. kapituluaren arabera.

### 11. GALDERA Puntuak, guztira: 4 puntu.

*Diskriminazioa eta aniztasuna EAEn: ikuspegiak, esparruak eta kolektiboak (2021)* azterlanaren arabera, adierazi zeintzuk diren diskriminaziorako zortzi arrazoi nagusiak, eta definitu horietako bi.

### 12. GALDERA Puntuak, guztira: 2 puntu.

CERMIk eredu-proposamen bat egin zuen toki-administrazioek desgaitasuna duten pertsonen inklusiorako ekintza-planak egin ditzaten; adierazi zein liratekeen sartu beharreko hamar arlo nagusiak, horri jarraituz.

### 13. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralak hamabost aplikazio-eremu ditu. Aipatu horietako sei.

### 14. GALDERA Puntuak, guztira: 3 puntu.

Adierazi eta deskribatu 2030 Agendaren zer GJHk biltzen dituen hirirako eskubidearen osagaiak eta premisak, eta adierazi GJHetatik zein lotzen den inklusio-printzipioarekin, eta zein diskriminaziorik ezaren printzipioarekin.

**15. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Erljio-askatasuna oinarrizko eskubidea da, eta eskubide hori banaka eta taldeka erabiltzeak eragina du tokiko gobernuek ematen dituzten eskumenetan eta zerbitzuetan. *Udaletan erlijio aniztasuna kudeatzeko eskuliburuaren arabera*, Udalak emandako zer zerbitzuek dute zuzeneko eragina erlijio-askatasunaren erabileran? Adierazi erabiltzaileen berezitasun erlijiosoek eragina izan dezaketean bi zerbitzu.

**16. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Carlos Giménezek proposamen bat egiten du komunitate baten barruko soziabilitatean planteatzen diren hiru agertokiei buruz. Aipa itzazu bizikidetzaren positiboaren alde landu beharreko bederatzi dimentsioetatik sei gutxienez, eta deskriba itzazu horietako hiru.

**17. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

Defini ezazu zer den memoria kolektiboa, eta adieraz ezazu horren zer maila desberdinek osa dezaketean hiri-memoria, G. Giménezek *Memoria, relatos e identidades urbanas* artikuluari jarraituz.

**18. GALDERA** Puntuak, guztira: 2 puntu.

Udalaren Kode Etikoak nortasun-ikur diren balioak sustatzen ditu. Zerrendatu.

**19. GALDERA** Puntuak, guztira: 3 puntu.

*Diskriminazioa eta aniztasuna EAEn: ikuspegiak, esparruak eta kolektiboak* azterlanari jarraituz, aipa itzazu diskriminazio mota desberdinak, eta tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza defendatzen duten zenbait erakundetatik araudietan identifikatuko bi definitu.

**20. GALDERA** Puntuak, guztira: 1,90 puntu.

Adierazi zein den erantzun okerra eta azaldu zergatik. Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legearen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira biktimatzat:

- 1.- Sexu-orientazio edo -identitateagatik errepresioa jasan zuten LGTBI pertsonak.
- 2.- Beren hizkuntza erabili edo zabaltzeagatik errepresaliatutako edo jazarritako pertsonak.
- 3.- Unión Militar Republicana elkarteko kide izateagatik errepresaliatuak eta Indar Armatuetatik kanporatuak izan ziren pertsonak.
- 4.- Gerra eta diktaduraren ondorioz gurasoen baimenik gabe lapurtu eta adoptatutako haurrak, baita haien gurasoak eta anai-arrebak ere.